

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Garapenerako lankidetzako proiektuak finantzatzeko udal laguntzen 2020ko deialdia eta oinarriak

Udalbatzak, 2020ko maiatzaren 13an egindako osoko bilkuran, garapenerako lankidetzako proiektuak finantzatzeko 2020ko udal laguntzak arautzen dituzten oinarriak onetsi zituen.

Bat etorri Dirulaguntzen azaroaren 27ko 38/2003 Lege Orokorrak 9.3 artikuluan, Dirulaguntzak arautzen dituen udal ordenantzaren 4.4 artikuluan, eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 45.1 artikuluan xedatutakoarekin, argitaratu egiten dira haiek, guztiek jakin ditzaten.

LEHENA.– DEIALDIAREN XEDEA

Deialdi honen xedea da garapen bidean dauden herrialdeetako lankidetzak ekintzak finantzatzeko laguntzak ematea, Donemiliagako herritik elkartasunezko harremanak sendotzen laguntzeko.

BIGARRENA.– ENTITATE ETA PERTSONA ONURADUNAK

Irabazteko xederik gabeko gobernuz kanpoko entitateek eta pertsona fisikoek nahiz juridikoek eska dezakete dirulaguntza, baldin eta Donemiliagako herriarekin zerikusi zuzena duten bazkideak edo laguntzaileak badituzte eta deialdi honen xedearekin bat datozen proiektuak garatzen ari badira.

Deialdi honetatik berariaz baztertzen dira:

- Estatuaren, Autonomia Erkidegoaren eta Foru Aldundiaren menpeko erakundeak eta zerbitzuak, eta aurrezki entitateak. Salbuespena: ikastetxeak ez dira baztertzen.
- Enpresak eta irabazteko xedea duten bestelako entitate guztiak.
- 38/2003 Lege Orokorrak, Dirulaguntzenak, 13. artikuluan ezartzen duenaren arabera onuradun izatea debekatuta duten entitateak.
- Emakume eta gizonak berdintasunean aritzea edota parte hartzea galarazten duten entitateak, ondoko hauek izan ezik: sexu bereko kideez osatuta egonda ere, helburu nagusizat emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea edo emakumeen eta gizonen interes eta beharrian espezifikoak sustatzea duten entitateak.

HIRUGARRENA.– DIRULAGUNTZA JASO DEZAKETEN PROIEKTUAK

Diruz laguntzekoak izango dira 2020an zehar egiten diren garapenerako lankidetzak proiektuak.

Dirulaguntza izan dezakete, halaber, 2019an egindako eta aurtengo deialdiaren harira eskatutako eta haien jarraipena diren lankidetzak proiektuek. Eskabidean aipatu beharko da proiektua 2019an hasi zela eta 2020an jarraitu egiten duela.

Proiektuek irizpide hauek bete beharko dituzte:

- Garapen bidean dauden herrialdeetako herritarrei garatzen laguntzeko eta Donemiliagak dituen elkartasun harremanak sendotzeko garapenerako lankidetzak proiektuak, irabazteko xederik gabeko garapenerako gobernuz kanpoko erakundeek edo/eta pertsona fisikoek nahiz juridikoek sustatutakoak.

– Erakunde eskatzaileek beren helburuen artean honako hauek izango dituzte: garapenerako lankidetzak jarduerak egitea, irabazteko asmorik eza eta emandako diru sarrerara guztiak garapenerako lankidetzak jardueretan eta gizarte egintzetan erabiltzea.

Laguntza horiek dirutan emango dira honako hauek aplikatuta: 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzena; 887/2006 Errege Dekretua; Donemiliagako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza; eta aplikatu beharreko gainerako legeria.

LAUGARRENA.– ESKAEREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Eskaerekin batera honako hauek aurkeztu behar dira:

– Eskaera orria, eredu ofizialaren arabera.

– Honako hauek azaltzen dituen aurkezpena: egin nahi den proiektuaren helburuak, aurreikusitako emaitzak, eta jarduerak eta baliabideak.

– Gastuen aurrekontu xehatua, eurotan; gastuez gainera, tokiko nahiz berezko baliabideak eta beste entitate batzuei eskatutako nahiz haiengandik eskuratutako dirulaguntzak ere azaldu behar dira.

– Zehatz azaldu behar da aurrekontua eurotan kalkulatzeko erabili diren kanbio tasen balioa (euroa eta nazio dibisa edo diruaren artekoak) eta noizkoak diren dokumentatu behar da.

– Laguntza eskatu duen irabazteko xederik gabeko gobernuz kanpoko entitatearen, pertsona fisikoaren edo juridikoaren txosten laburra.

– Biztanle kopuruaren edo hartzaileen datuak, sexuaren arabera xehaturik (emakumeak eta gizonezkoak) edo, entitateek datuak bildu badituzte, genero nortasunaren arabera (emakumeak, gizonak eta bestelako nortasunak), bai aurkeztutako proiektuan, bai haren justifikazioan.

– Donemiliagako Udalak informazio gehiago eskuratze aldera, beste agiririk ere eskatu ahal izango du, aurkeztutako proiektuaren zer-nolakoak direla-eta beharrezkotzat jotzen badu.

BOSGARRENA.– DIRULAGUNTZAK EMATEKO IRIZPIDEAK ETA AURREKONTUKO ZUZKIDURA.

Dirulaguntzak borondatezkoak izango dira. GKE eskatzaile bakoitzari proiektu baterako bakarrik emango zaio dirulaguntza.

Deialdi honen bidez banatzen diren dirulaguntzak ezarritako xederako emango dira. Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da izango ekimenaren edo proiektuaren aurrekontuaren ehuneko 75 baino gehiago eta dirulaguntzen baturak ezin izango du gaintu udalerriko aurrekontu orokorrean horretarako dagoen aplikazioari esleitutakoa.

Deialdi honi aurre egiteko aurrekontu aplikazioaren zenbakia hau da: 231.481.002. Partida horren zuzkidura, gehienez, 9.505,59 euro izango da.

2020an gauzatu beharreko proiektuetarako dirulaguntza 7.543,83 euro izango da.

2019an egindako eta aurtengo deialdiaren harira eskatutako eta haien jarraipena diren lankidetzak proiektuetarako dirulaguntza 1.961,76 euro izango da.

2019an gauzatuak diren proiektuei dagozkien eskaerak ebatzita, kreditu erabilgarririk geratzen bada, 2020an zehar gauzatu beharreko proiektuak finantzatzen erabili ahal izango da.

Lehenetsuna edukiko dute Donemiliagako herritarrek modu aktiboan parte hartzen duten proiektuek.

Dirulaguntzaren ehunekoa finkatzeko baremazio irizpide hauek hartuko dira kontuan:

IRIZPIDEAK	%
Eskatutako proiektua Donemiliagako Udalak bakarrik finantzatzea	30
Donemiliagan erroldatutako herritarrek partaidetza aktiboa duten proiektuak	20
Haurrak eta gazteak garatzeko, mantenua emateko eta bizirauteko proiektuak	15
Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko proiektuak, haien denbora-jarraitasuna baloratuta	10
GUZTIRA	75%

Diruz lagundu ahal izango dira erakunde onuradunen kudeaketa gastuak eta gastu arruntak. Hala ere, udalbatzak erabakiko du dirulaguntzaren zein ehuneko emango den gastu horietarako; gehienez, ehuneko 25 emango da.

SEIGARRENA.– LANKIDETZA PROIEKTU GUZTIEK GENERO ARLOKO BALDINTZA HAUEK BETE BEHARKO DITUZTE

– Argiro zehaztuta edukitzea emakumeen kolektiboan duten eragina, haientzako edozein ondorio kaltegarri galaraztea eta, hala badagokio, eragin hori indargabetzeko zuzentze neurriak aurreikustea.

– Haiek proiektuan parte hartzea sustatzea.

– Haiek proiektuak sortzen dituen enplegu ordainduak lortzeko bidea erraztea.

– Halaber, proiektuak zehazturik eduki behar ditu genero emaitzak, guztiz txikiak badira ere.

ZAZPIGARRENA.– AGIRIEN AURKEZPENA

Dirulaguntza eskaerak hainbat modutan aurkeztu daitezke: zuzenean Donemiliagako Udaleko erregistroan (Andia kalea 9, 01208 Erdoña – Araba); erregistrora bidalita posta ziurtatuz edo posta elektronikoz; edo urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 16.4 artikuluan arautzen dituen moduetan.

Epea: Deialdiaren iragarkia ALHAOn argitaratu ondoko egunetik 2020ko irailaren 7ra arte, 14:00ak arte hain zuzen.

Garaiz eta behar bezala aurkeztutako eskaerak baino ez dira onartuko izapidetzeko.

ZORTZIGARRENA.– DIRULAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA

Udalaren laguntzak bateragarriak dira eskatzaileek lortzen dituzten beste guztiekin. Dena dela, Udalaren dirulaguntzaren zenbatekoak, beste laguntza batzuekin batera, ezin izango du jardueraren edo programaren zenbatekoa gainditu.

Gastuen finantzaketa eta laguntza edo beste sarrera batzuen ekarpen osagarriak zenbatekoak diren jakin ondoren, onetsitako dirulaguntza berrikusi ahal izango da.

BEDERATZIGARRENA.– ESKAERAK AZTERTU ETA EBAZTEA, ETA DIRULAGUNTZAK KOBATZEA

Donemiliagako Udaleko gizarte eta kultura zerbitzuko teknikari arduradunak ebaluatuko ditu proiektuak.

Donemiliagako Udalbatzak dauka deialdia ebazteko eskumena, frogagiriak aurkeztu ondoren; gero onartutako dirulaguntza osoa ordainduko da.

Deialdiaren ebazpena eskaerak aurkezteko epealdia amaitzen denetik hiru hilabete pasatu baino lehen emango da. Epealdi horretan berariaz ebazten ez diren eskaerak ezetsizat jo beharko dira.

Ebazpenak amaiera emango dio administrazio bideari, eta bertan adieraziko dira haren aurka jar daitezkeen errekurtsoak. Ebazpena Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 42. eta 43. artikuluetan ezarritakoaren arabera jakinaraziko da.

Eskaerak ebatzi eta kreditu erabilgarria dagoela ikusi ondoren Udalbatzak egokitzat jotzen dituen proiektuetarako erabili ahal izango da kreditu hori.

Transferentziek eta bestelakoek eragiten dituzten gastuak dirulaguntzaren zenbatekoan sartuko dira; beraz, ez ditu bere gain hartuko Udalak, baizik eta interesdunek.

Eskaera batek ez baditu betetzen adierazitako baldintzak, Donemiliagako Udalak interesdunari eskatuko dio akatsa zuzentzeko edo behar diren agiriak aurkezteko hamabost egun pasatu baino lehen.

HAMARGARRENA.– ONURADUNEN BETEBEHARRAK

a) Onuradunek, eskatutako aurrekontua frogatzeaz gainera, jardueraren memoria xehatua eta gastu eta sarreren balantze ekonomikoa aurkeztu beharko dituzte.

b) Ezin izango da aldatu emandako dirulaguntzaren xedea, udalak baimena eman ezean.

c) Jardueraren publizitatean hauxe agertu behar da idatzita: “Donemiliagako Udalaren laguntzarekin - Con la colaboración del Ayuntamiento de San Millán”.

d) Agiri guztietan, publizitatean, irudietan edo materialean kontu izan beharko da komunikazio ez sexista erabiltzeko, eta, horrela, emakumeak diskriminatzen dituen edozein irudi edo estereotipo sexista saihesteko eta berdintasun balioak sustatzeko.

e) Ahal izanez gero, publizitatea eta komunikazioak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan egin behar dituzte.

f) Donemiliagako Udalak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta beste erakunde eskudun batzuek eskatzen dituzten argibide guztiak eman behar dituzte.

g) Azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorrak eta Dirulaguntzen Udal Ordenantzak ezarritako betebeharrak.

HAMAIKAGARRENA.– GASTUEN JUSTIFIKAZIOA

Diruz lagundutako programa edo jarduera bukatu ondoren, justifikatu egin beharko da, 2020ko abenduaren 1erako, beranduenez. Epe horretan agiriak aurkezten ez badira, ordainketa kredituak baliogabetuko dira eta aurreratutako diru kopururik izanez gero, itzultzeko eskatuko da.

Jarduera justifikatzeko agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Eskaera-frogagiri bat (eredu ofizialaren arabera) programa edo jarduera bakoitzeko. Eredua Udalaren bulegoetan eskura daiteke edo Udalaren webgunetik har daiteke: www.donemiliaga.eus.

b) Egindako jarduerak eta horien emaitzak adierazten dituen memoria.

c) Justifikazio kontu erraztua (eredua I. eranskinean dago; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 75. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritik egin da) edo gastu guztiak frogatzen dituzten fakturak.

Dirulaguntza ematen duen organoak nahi duen frogagiri guztiak egiaztatuko ditu dirulaguntza behar bezala aplikatu den argitzeko; horretarako ezartzen diren laginketa teknikak erabiliko ditu. Hori dela eta, hautatzen dituen gastu frogagiriak igortzeko eskatu ahal izango die onuradunei.

HAMABIGARRENA.– ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Dirulaguntza eskatzeak oinarri hauek ezagutu eta onartzen direla esan nahi du.

Dirulaguntza zertarako eman den, horrexetarako erabiliko da.

HAMAHIRUGARRENA.– DIRULAGUNTZA GALTZEA

Oinarri hauetan ezartzen diren betebeharrak eta zehaztapenak ez betetzeak emandako dirulaguntzaren zati bat edo guztia galtzea ekar dezake.

HAMALAU GARRENA.– INTERPRETAZIOA

Oinarri hauek interpretatzean zalantzarik sortzen bada, Donemiliagako Udalak ebatziko du.

Aplikatu beharreko oinarrizko arauak dira Dirulaguntzen Udal Ordenantza; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzena; eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arautegia onesten duena.

HAMABOSGARRENA.– ERREKURTSOAK

Deialdi honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, aukerako berraztertze errekurtsua deialdi hau onartu duen organoari berari, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; organo horren ebazpen espres edo presuntzioskoaren aurka, berriz, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, bi hilabeteko epean, errekurtsua ezesten duen ebazpena jakinarazten den egunaren hurrengotik aurrera, edo, ebazpena presuntzioskoa bada, sei hilabeteko epean, presuntziosko ebazpen hori gertatzen den egunaren hurrengotik aurrera.


HAMASEIGARRENA.– KONFIDENTZIALTASUNA


Donemiliagako Udalak, Datu Pertsonalen Babesaren eta Eskubide Digitalen Bermearen abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betez, jakinarazten du zuk ematen dizkiguzun datuak Donemiliagako Udalaren ardurapeko tratamendu jarduera batean sartuko direla, zeinaren helburu baita horien ondoriozko administrazio espedienteak eta administrazio jarduerak izapidetzea eta kudeatzea. Ez da aurreikusten zure datuak hirugarrenei jakinaraztea, nahiz eta, haien edukiaren arabera, hartara legez behartuta egon gintezkeen. Halaber, eskubidea izango duzu datuetan sartu, haiek zuzendu, ezereztu, haien aurka egin, tratamendua mugatu, edo datuok transferitzeko. Eskubide horiek guztiak Donemiliagako Udalean egikarrituko dira, Arabako Erdoña herriko (01208) Andia kaleko 9an edo posta elektronikoko honetan: asanmillan.general@ayto.araba.eus. Azken helbide horretan argibide gehiago ere eskatu ahal izango duzu.

Erdoña, 2020ko ekainaren 9a

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO

AYUNTAMIENTO DE SAN MILLAN (ALAVA)		DONEMILIAGAKO UDALA (ARABA)
Andia, 9 – 01208 - Ordoñana	CIF / IFK: P.0105900-E	T: 945-300472 / F: 945-312081
www.sanmillan.eus		
GARAPENERAKO LANKIDETZA EGITASMORAKO DIRULAGUNTZEN ESKABIDEA/ SOLICITUD DE SUBVENCIÓN PARA PROYECTOS DE COOPERACIÓN AL DESARROLLO (Año 2020)		
ESKARIA AURKEZTEN DUEN PERTSONA EDO ENTITATEA PERSONA O ENTIDAD QUE PRESENTA LA SOLICITUD		
Elkartea / Asociación o entidad		IFK / NIF – NAN / DNI
Arduraduna / Responsable		NAN / DNI
Elkartearen erregistro zenbakia eta data / Fecha y número de registro de la Asociación		
Bazkide edo kirolkideak / Número de socios- socias o componentes		
Kontu zenbakia / Número de cuenta bancaria		
Kalea / Calle	Zk / N ^o	Solairua / Piso
Herria/ Pueblo		
Posta-Kodea / Código Postal	Udalerría / Municipio	Lurraldea / Provincia
e-posta / correo electrónico	Telefono zk. / N ^o Teléfono	Sakelakoaren zk. / N ^o móvil
Baimena ematen dut nire datuak Udaleko datu-basean sar daitezen, udal informaziorako soilik <input type="checkbox"/> BAI/SI Autorizo que mis datos formen parte de la base de datos del Ayuntamiento únicamente para efectos Informativos municipales <input type="checkbox"/> EZ/NO		
DEKLARATZEN DUT / DECLARA		
<input type="checkbox"/> Betebehar fiskal eta/edo zerga-betebeharrak beteta dituela / Estar al corriente en el pago de las obligaciones fiscales y/o tributarias.		
<input type="checkbox"/> Entitateak ez du soldatapeko langilerik / La entidad no tiene personal asalariado.		
<input type="checkbox"/> Entitateak soldatapeko langilerik badu / La entidad tiene personal asalariado.		
DIRUSARREREN AURREKONTUA / PRESUPUESTO DE INGRESOS		
KONTZEPTUA / CONCEPTO	ZENBATEKOA / IMPORTE	

AYUNTAMIENTO DE SAN MILLAN (ALAVA)		DONEMILIAGAKO UDALA (ARABA)	
Andia, 9 – 01208 - Ordoñana CIF / IFK: P.0105900-E T: 945-300472 / F: 945-312081 www.sanmillan.eus			
GASTUEN AURREKONTUA / PRESUPUESTO DE GASTOS			
KONTZEPTUA / CONCEPTO		ZENBATEKOA / IMPORTE	
ERANTSITAKO DOKUMENTAZIOA / DOCUMENTACIÓN QUE SE ADJUNTA			
<input type="checkbox"/> Estatutuen fotokopia, eta Eusko Jaurlaritzaren Elkarte eta Erakundeen Erregistroan legez erata eta erregistratuta dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa. Dokumentazioa aurretik aurkeztua duten erakundeek ez dute berrito aurkeztu beharrik izango, aldaketaren bat izan dutenek eta menpeko toki erakundeak direnek salbu / Fotocopia de los Estatutos y documentación que acredite estar legalmente constituida e inscrita en el registro de Asociaciones y Entidades del Gobierno Vasco. Se exceptúan aquellas Entidades que ya los presentaron con anterioridad, salvo que hubiera habido alguna modificación y, aquellas que sean entidades locales menores.			
<input type="checkbox"/> Besteak / Otros:			
Sinadura /firma	Izena / Nombre: Kargu / Cargo: NAN / DNI:		
ESKABIDE HAU ONDOKO HELBIDE HONETAN AURKEZ DAITEKE ESTA SOLICITUD SE PUEDE ENTREGAR EN:			
Donemiliagako Udala / Ayuntamiento de San Millán Andia Kalea, 9 01208 – Ordoñana (Araba) www.donemiliaga.eus			
Aurrez aurre: Udalean Andia Kalea, 9 – Ordoñana Ordutegia: astelehenetik ostiralera 09:00etatik 14:00etara		Presencialmente: En el Ayuntamiento Calle Andia, 9 – Ordoñana Horario de lunes a viernes de 9:00 a 14:00.	
Postaz: Posta ziurtatu irekiaren bitartez posta bulegoetan		Por correo postal: En las oficinas de correos mediante correo certificado abierto.	
Helbide elektronikoa: asanmillan.general@ayto.araba.eus Informazio gehiagorako, deitu: 945 300472		Correo electrónico: asanmillan.general@ayto.araba.eus Para más información llamar al 945 300472	

**AYUNTAMIENTO DE SAN
MILLAN**
(ALAVA)



DONEMILIAGAKO UDALA
(ARABA)

Andia, 9 – 01208 - Ordoñana CIF / IFK: P.0105900-E T: 945-300472 / F: 945-312081 www.sanmillan.eus

DATUEN BABESA

Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko 3/2018 Lege Organikoan, abenduaren 5ekoa, ezarritakoa betez, Donemiliagako Udalak jakinarazten dizu, inprimaki honen bitartez jaso dituen zure datu pertsonalak, Udalak kudeatzen duen datuak tratatzeko jarduera batean sartuko dituela, xedea administrazio espedienteen izapidetza eta kudeaketa izanik, baita hauetatik eratorritako administrazio jarduerena ere. Ez da aurreikusten hirugarrenei datuak ematea, edukiaren arabera legalki derrigorakoa izan baliteke ere. Egokia balitz, zure datuak ikusi, zuzendu edo ezabatzeko eskubidea balia dezakezu, baita bere tratamendua ez baimentzekoa edo mugatzekoa ere, honako helbide honetara joz ; Donemiliagako Udala: Andia 9, 01208 (Araba.), edo honako helbide elektronikora;

asanmillan.general@ayto.araba.eus. Bertan informazio gehiagarria eskatu ahal izango duzularik.

PROTECCIÓN DE DATOS

El Ayuntamiento de San Millán, en cumplimiento de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales, informa que los datos personales que Vd. nos proporciona se incluirán en una actividad de tratamiento de la que es responsable el Ayuntamiento de San Millán, cuya finalidad es la tramitación, gestión de expedientes administrativos y actuaciones administrativas derivadas de estos. No está previsto la comunicación de sus datos a terceros, aunque se pudiera tener obligación legal según el contenido. Puede ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión y portabilidad de sus datos, de limitación y oposición a su tratamiento, cuando procedan, ante al Ayuntamiento de San Millán, calle Andía, número 9, 01208 Ordoñana – Álava-, o en la dirección de correo electrónico asanmillan.general@ayto.araba.eus, en la que también podrán solicitar más información adicional.